

ERNE (Gogoeta)

Gero eta ume gutxiago eta bizi esperantza handiagoa den gizarte batetan bizi gara. Ondorio logiko bat gizartearen parte txiki batek mantendu behar duela zatirik handiena. Hau da, gutxi batzuen bizkar geratzen dela gazteen formakuntza, helduen zaintza, zerbitzu publikoen funtzionamendua,...

Helduak Adi! gure elkarte abian jarri zenean, zahartzarora narriadura moduan ikusten zen batez ere, gero eta menpekotasun handiagoa eta ondorioz, kostu handiagoak ere. Pentsa dezakegu izango zirela zahartzarora desagertzeko sektore moduan ikusiko zutenak ere.

Helburu garbi batekin sortu ginen: zahartzarora posibilitate handiak dituen garaia moduan onartzen laguntzea. Ez da nahikoa denbora libre a taiuz betetzea edo ekintza kulturalak bideratzea. Beharrezkoa da gizartearen eraldatu eta hobetzeko lanetan pertsona helduen partehartze zuzena. Hitz batean: borrokatu behar dugu partaidetza aktibo baten alde.

Defendatu ohi dugu gure sektorea gero eta potenteagoa dela, gero eta gehiago eta hobeto prestatuak gaudelako bai fisikoki, bai intelektuarki. Gure kolektiboak, aurrekoek markatu ziguten bideari jarraituz, eraman du gizarte hau bizi dugun egoeraraino, hau da garatutako herri bat izatera, demokratikoa, europarra. Ez da onena izango baino bai edonorekin, onenekin ere elkar lanean jarduteko prestatuta dago gure herria.

Historian zehar bizi izan den bizi-kalitate onena gozatzeko aukera izan dugu. Ohituta gaude zorrotzak izaten, eta horrela jarraituko dugu.

Baina ba patean birus batek, gure artean lekua hartu du eta ondorio larriak sortzen ari da osasunean (gure sektorean bereziki) politika publikoetan eta baita presupostuetan ere. Ez dugu ahaztu behar une kritiko bat ari garela bizitzen. Europa Kontseiluan bertan eraikuntza plan berezi batetaz ari dira hitz egiten, nahiz eta beldur naizen perspektiba ekonomiko batetik bakarrik ez ote diren jardungo.

Ez dezagun ahaztu ere, Kataluniako Generalitatek aholkatu zuela 80 urtetik gorako inor ez sartzea ZIUn. Osasun arduradunak berehala deuseztatu zuen arren aholku hau, gertatutakoa hor dago. Bizitza ziurtatzeko, ez dago urteak lehentasun moduan hartzerik, ez legalki, ez protokoloz. Baina gertatutako gertatu zen.

Oso hurbil daukagun etorkizunak arduratu behar gaitu, zer konturatu gabe, orain urte gutxi arte zahartzarotaz zegoen irudira itzuli gintezke. Hau da, zahartzaroa narriadura, menpekotasun, kostu,... kontzeptuekin lotzen duen irudira.

Eta orain erabiltzen ari den kontzeptua nahasgarriagoa izan daiteke, babesarena alegia. Zaharrok asko egin dugu gizartearen alde, beraz logika guztiz gizarteak babestu behar gaitu, baina babes horrek ekar dezake gure askatasunaren murriztea. Gure orde bestek erabakitzea. Ihes egin behar dugu irudi horretatik “zahar gaixo hauek, gure alde horrenbeste egin dutenak, zaindu, babestu egin behar dira”.

EZ BA! Zahar errukigarri hauek, erabat gai gara gure buruak zaintzeko, babesteko. Ez dugu behar beste batzuk, kanpotik, gure bidea markatzea. Gu geu gai gera gure etorkizuna bideratzeko.

Eta horretarako goazen Helduak Adi!n hasieratik ezarri genituen helburuetara. Ahalegin handiz gizartean lortu dugun presentzia, eta baita gure ahotsa entzutea, ezin ditugu galdu. Aholkulari diren organoetan parte hartzen dugu orain: borrokatu gaitezen **erabakitzen dutenetan** parte hartzea. Indarra badugu gure sektorean lan egiteko, baina baita gizarteko beste guztietan ere, gero eta gizarte zuzenago, libre eta solidarioagoa izan dezagun.

Antonio Campos Illarramendi
Helduak Adi!ko Lehendakaria